



Perlak

INGLOURIOUS BASTERDS (Bastart madarikatuak), Quentin Tarantino (AEB-Alemania)

Inaugurazioa (Lehiaketa barnean)

VENGEANCE, Johnnie To (Hong Kong)

Klausura

DESERT FLOWER, Sherry Hormann (Alemania)

FIVE MINUTES OF HEAVEN, Oliver Hirschbiegel (Britainia Handia-Irlanda)

THE IMAGINARIUM OF DR. PARNASSUS, Terry Gilliam (Britainia Handia-Kanada)

KASI AZ GORBEHAYEH IRANI KHABAR NADAREH / NO ONE KNOWS ABOUT PERSIAN CATS (Inork ez daki ezer katu pertsiarrez), Bahman Ghobadi (Iran)

THE LIMITS OF CONTROL, Jim Jarmusch (AEB-Espainia-Japonia)

LONDON RIVER, Rachid Bouchareb (Aljeria-Frantzia-Britainia Handia)

MOTHER, Bong Joon-ho (Hego Korea)

PRECIOUS, Lee Daniels (AEB)

UN PROPHÈTE (Profeta), Jacques Audiard (Frantzia-Italia)

TAKING WOODSTOCK (Helmuga: Woodstock), Ang Lee (AEB)

DAS WEISSE BAND (Zinta zuria), Michael Haneke (Alemania-Austria-Frantzia-Italia)

YUKI & NINA, Nobuhiro Suwa, Hippolyte Girardot (Frantzia-Japonia)

WHATEVER WORKS (Ongi badoa...), Woody Allen (AEB-Frantzia)

Lehiaketatik kanpo

Publikoaren TCM Saria



Zuzendari Berriak

77 DORONSHIP, Pablo Agüero (Argentina-Frantzia)

ANIMAL TOWN, Jeon Kyuhwan (Hego Korea-AEB)

EL CUARTO DE LEO (Leoren gela), Enrique Buchichio (Uruguai)

DESPERADOS ON THE BLOCK, Tomasz Emil Rudzik (Alemania)

HUIT FOIS DEBOUT, Xabi Molia (Frantzia)

LE JOUR OÙ DIEU EST PARTI EN VOYAGE, Philippe Van Leeuw (Belgika)

MÀSCARES (Maskarak), Elisabet Cabeza, Esteve Rimbau (Espainia)

MIN DÎT / THE CHILDREN OF DIYARBAKIR, Miraz Bezar (Turkia-Alemania)

NORTEADO, Rigoberto Perezcano (Mexiko-Espainia)

ORI, Miguel Ángel Jiménez Colmenar (Espainia-Georgia)

SAMMEN / TOGETHER, Matias Armand Jordal (Norvegia)

THE SCOUTING BOOK FOR BOYS, Tom Harpe (Britainia Handia)

WO DE TANG / SEASONS IN THE SUN, Zhang Huilin (Txina)

ZORION PERFEKTUA, Jabi Elortegi (Espainia)

Kutxa-Zuzendari Berriak Sariak



Bereziak

RUZHAYE SABZ / GREEN DAYS, Hana Makhmalbaf (Iran-Frantzia)

THE SHOCK DOCTRINE, Michael Winterbottom, Mat Whitecross (Britainia Handia)

WHEN YOU'RE STRANGE: A FILM ABOUT THE DOORS, Tom DiCillo (AEB)



INGLOURIOUS BASTERDS

(Bastart madarikatuak)

Zuzendaria: Quentin Tarantino • **Gidoia:** Quentin Tarantino • **Argazkia:** Robert Richardson • **Antzezleak:** Brad Pitt, Mélanie Laurent, Christoph Waltz, Eli Roth, Michael Fassbender, Diane Kruger, Daniel Brühl,
Iraupena: 153 m. • AEB-Alemania
Inaugurazioa (Lehiaketa barnean)

Alemaniarrek Frantzia hartu zuteneko lehen urteetan, Shosanna Dreyfus-ek Hans Landa koronel naziak bere familia nola hilarazten duen ikusten du. Shosannak ihes egitea lortzen du, eta Parisera joaten da. Han beste nortasun bat hartuko du, zinema baten jabe eta langile gisa. Europako beste leku batean, Aldo Raine tenienteak soldadu judutarren taldea antolatzen du, errepresalia azkarrak eta krudelak hartzeko. Gizonezko Aktore Onenaren saria (Christoph Waltz) Canneseko Zinemaldian.

VENGEANCE

Zuzendaria: Johnnie To • **Gidoia:** Wai Ka Fai • **Argazkia:** Cheng Siu Cheung • **Antzezleak:** Johnny Hallyday, Sylvie Testud, Anthony Wong, Lam Suet
Iraupena: 108 m. • Hong Kong
Klausura

Aita bat Hong Kongera joango da alabarengatik mendeku hartzeko, haren familia osoa hil baitute. Ofizialki chef frantziarra da. Duela hogeitun urte, hiltzailea zen. Zinema beltz garaikidearen maisuak eta *Election* (2005) eta *Exiled* (2006) sortzaileak Johnny Hallyday ospetsua mendeku estilizatu baten aurrean jartzen du.

DESERT FLOWER

Zuzendaria: Sherry Hormann • **Gidoia:** Sherry Hormann • **Argazkia:** Ken Kelsch • **Antzezleak:** Liya Kebede, Sally Hawkins, Craig Parkinson, Meera Syal, Soraya Omar-Scego
Iraupena: 124 m. • Alemania

Waris gazteak hamahiru urte dituela jakingo du gizon zahar batekin ezkontzeko tratua egin duela aitak, eta senarraren laugarren emaztea izango dela. Neska gazteak ikusiko du aukera bakarra ihes egitea dela. Lana aurkituko du Somaliak Londresen duen enbaxadan, urruneko senitarteko batzuen neskame gisa. Urte batzuk beranduago, Somaliar gerra zibila hasi eta enbaxada ixten dutenean, Waris, emakume gazte bihurtuta jada, erbestertzeko arriskuan dago eta berriro ihes egitea erabakiko du. Veneziako Zinema Jaialdian aurkeztu zuten.

FIVE MINUTES OF HEAVEN

Zuzendaria: Oliver Hirschbiegel • **Gidoia:** Guy Hibbert • **Argazkia:** Ruairi O'Brien • **Antzezleak:** Liam Neeson, James Nesbitt, Anamaria Marinca
Iraupena: 90 m. • Britainia Handia-Irlanda

Bizitzaren eta heriotzaren aurkako muturretan dauden bi gizonen bakeko egiteko ideia ezinezkoa edo oso inozoa da. *Five Minutes of Heaven* Irlandako herri bereko baina aurkako ideia politikoak dituzten bi gizonen bizitzaren inguruko filma da; gai horren inguruko filmen antzik ez duena. Gizonetako bat, Alistair hiltzailea da. Bestea, Joe, Alistairrek hildako gizonaren anaia da. Bat ez da barkamena eskatzera ausartzen, eta bestea ez da barkatzeko gai. Zuzendari Onenaren eta Gidoilari Onenaren sariak Sundanceko Zinemaldiko World Cinema atalean.



THE IMAGINARIUM OF DR. PARNASSUS

Zuzendaria: Terry Gilliam · **Gidoia:** Terry Gilliam, Charles McKeown · **Argazkia:** Nicola Pecorini · **Antzezleak:** Heath Ledger, Christopher Plummer, Lily Cole, Johnny Depp, Colin Farrell, Jude Law
Iraupena: 122 m. · Britainia Handia-Kanada

Genero fantastikoko irakaspena, gaur egunean kokatua. Dr. Parnassus eta bere ezohiko imaginarioak ikuskizun ibiltaria eskainiko dute. Publikoak argiaren eta pozaren edo iluntasunaren eta tristuraren artean hautatzeko aukera liluragarria izango du. Filmatzen ari ziren bitartean hil zen Heath Ledger; hala, hark amaitu ezin izan zuen lana osatu zuten Johnny Depp, Colin Farrell eta Jude Law aktoreen ekarpenei esker. Canneseko Zinema Jaialdian aurkeztu zuten.

KASI AZ GORBEHAYEH IRANI KHABAR NADAREH / NO ONE KNOWS ABOUT PERSIAN CATS

(Inork ez daki ezer katu pertsiarrez)

Zuzendaria: Bahman Ghobadi · **Gidoia:** Bahman Ghobadi, Roxana Saberi, Hosein M. Abkenar · **Argazkia:** Turaj Aslani · **Antzezleak:** Hamed Dehdad, Ashkan Koshanejad, Negar Shaghaghi
Iraupena: 106 m. · Iran

Espetxetik irten ondoren, emakume eta gizon musikari gazte banak talde bat osatzea erabakitzen dute. Teheranen ibiliko dira beste musikari underground batzuk aurkitzeko eta Iranetik irten daitezela konbentzitzen saiatzeko. Teheranen ospetsu egiteko aukerarik ez dutela dakitenez, klandestinitatetik irten eta Europan jotzeko ametsa dute. Baina nola lortu dirurik eta pasaporterik gabe? Canneseko Zinemaldiko Un Certain Regard saileko Epaimahaiaren Sariaren irabazlea.

THE LIMITS OF CONTROL

Zuzendaria: Jim Jarmusch · **Gidoia:** Jim Jarmusch · **Argazkia:** Christopher Doyle · **Antzezleak:** Isaach De Bankolé, Alex Descas, Jean-François Stévenin, Óscar Jaenada, Luis Tosar, Paz de la Huerta, Tilda Swinton, Gael García Bernal, Bill Murray, John Hurt
Iraupena: 116 m. · AEB-Espainia-Japonia

Izenik gabeko gizon bakartia Espainian bidaiatzen ari da. Pertsonaia misteriotsuak ezagutzen ditu, eta horiekin kafea partekatzen eta informazioa biltzen du. Zer dira bere asmoak eta zer idazten du bere oharretan? Jim Jarmusch gai edo estilo errepikakor baten sortzaile ez dela erakusteko itzuli da. *Down by Law (Bajo el peso de la ley, 1986)* eta *Ghost Dog: The Way of the Samurai (Ghost Dog: el camino del samurai, 1999)* filmeen sortzailea Zabaltegi-Bitxiak sailera itzuliko da; izan ere, 2005ean *Broken Flowers (Flores rotas)* aurkeztu zuen.

LONDON RIVER

Zuzendaria: Rachid Bouchareb · **Gidoia:** Rachid Bouchareb · **Argazkia:** Jérôme Alméras · **Antzezleak:** Brenda Blethyn, Sotigui Kouyaté, Roschdy Zem, Sami Bouajila
Iraupena: 87 m. · Aljeria-Frantzia-Britainia Handia

Ousmane musulmana Frantzia bizi da eta Sommers emakume kristaua, berriz, Anglo-normandar uharteetako batean. Biek bizimodu arrunta daramate, harik eta 2005eko uztailaren 7ko goizean, Londresko eraso terroristen egunean, bien haurrak desagertuta daudela jakingo duten arte. Britainia Handiko hiriburura iritsi arte ez dute jakingo beren umeak bertan bizi direla, elkarrekin. Aktore onenaren Zilarrezko Hartza Sotigui Kouyatérentzat Berlineko Zinema Jaialdian.



MOTHER

Zuzendaria: Bong Joon-ho • **Gidoia:** Park Eun-kyo, Bong Joon-ho • **Argazkia:** Hong Kyung-pyo • **Antzezleak:** Kim Hye-ja, Won Bin
Iraupena: 129 m. • Hego Korea

Hye-ja ama ezkongabea da eta bere 27 urteko semea, Do-joon, da bere bizitzeko arrazoia. Do-joon, heldua den arren, inuzente hutsa da eta amarekiko mendetasun handia du. Gainera, askotan, modu inozoan edo arriskutsuan jokutzen du. Etengabeko buruhaustea da beste guztientzat. Egun batean, neska gazte baten gorpua aurkituko dute abandonaturiko eraikin batean eta Do-jooni leporatuko diote haren heriotza. Bong Joon-ho Donostiako Sail Ofizialean lehiatu zen bere lehen bi filmekin, *Barking Dogs Never Bite* (2000) eta *Memories of Murder* (2003). *The Host* (2006) filma ere zuzendu du. *Mother* Canneseko azken Zinemaldiko Un Certain Regard sailean izan zen.

PRECIOUS

Zuzendaria: Lee Daniels • **Gidoia:** Geoffrey Fletcher • **Argazkia:** Andrew Dunn • **Antzezleak:** Gabourey Sidibe, Mo'Nique, Paula Patton, Mariah Carey, Sherri Shepherd, Lenny Kravitz
Iraupena: 109 m. • AEB

Precious Jones (Gabourey Sidibe) institutuko ikasleari dena gaizki dihoakio. Bigarren aldiz bere aitak haurdun utzi du. Ez daki irakurtzen ez idazten eta ikaskideek barre egiten diote potola dagoelako. Oso gaizki bizi da etxean. Amak (Mo'Nique) agintzen du, eta alaba emozionalki eta fisikoki preso du. Preciousen senak ondokoa esaten dio: ezjakintasunaren kateak apurtu nahi baditu, bere baliabideak erabili beharko ditu. Sundanceko Zinemaldian oso arrakastatsua izan zen, eta Epaimahaiaren Sari Berezia, Emakumezko Aktore Onenaren Saria (Mo'Nique) eta Ikusleen Saria eskuratu zituen. Lee Daniels bere opera primarekin – *Shadowboxer* (2005)– hartu zuen parte Zabaltegi-Zuzendari Berriak sailean.

UN PROPHÈTE

(Profeta)

Zuzendaria: Jacques Audiard • **Gidoia:** Jacques Audiard, Thomas Bidegain • **Argazkia:** Stéphane Fontaine • **Antzezleak:** Tahar Rahim, Niels Arestrup, Adel Bencherif, Reda Kateb, Hichem Yacoubi
Iraupena: 154 m. • Frantzia-Italia

Malik El Djebenari sei urteko kartzela zigorra jarri diote. Ez daki irakurtzen ez idazten. Bakarrik iristen da espetxera, eta beste presoak baino gazteagoa eta ahulagoa dirudi. 19 urte ditu. Korsikako bandaren buruak estutu eta hainbat «misi» agintzen dizkio. Ondorioz, gogorragoa da, eta bandaren buruzagiaren konfiantza bereganatzen du. Dena den, Malik ausarta da, azkar ikasten du eta ezkutuko planak antolatzen ditu. *Un héros très discret* (*Un héroe muy discreto*, 1996) eta *De battre mon cœur s'est arrêté* (*De latir mi corazón se ha parado*, 2005) filmen zuzendariaren istorioa. Canneseko Zinemaldian Epaimahaiaren Sari Nagusiaren irabazlea.



TAKING WOODSTOCK

(Helmuga: Woodstock)

Zuzendaria: Ang Lee · **Gidoia:** James Schamus · **Argazkia:** Eric Gautier · **Antzezleak:** Demetri Martin, Dan Fogler, Henry Goodman, Imelda Staunton, Liev Schreiber
Iraupena: 120 m. · AEB

1969. urtea da eta Elliot Tiber-ek, New Yorkeko Greenwich Village auzoko dekoratzaile batek, zorte txarreko bolada du. Iparraldera bizitzera joan behar da, gurasoek Catskills-en duten motel kalamastran, El Monaco izenekoan, laguntzeko. Egun batean, gertuko herri batek musika jaialdi hippie bat antolatzen du baimena lortu duenaren berri du Elliotek, eta ekoizleei deitzen die, negozioarako zerbait lortu dezakeela pentsatzen duelako. Hiru aste ondoren, Elliotek bere bizia eta herri kultura betirako aldatuko duen esperientzia biziko du. Beste aldaketa izugarri bat *Brokeback Mountain* (2005) eta *Sense and Sensibility* (1995) filmen zuzendariaren ibilbidean.

DAS WEISSE BAND

(Zinta zuria)

Zuzendaria: Michael Haneke · **Gidoia:** Michael Haneke · **Argazkia:** Christian Berger · **Antzezleak:** Christian Friedel, Ernst Jacobi, Leonie Benesch, Ulrich Tukur, Burghart Klaussner
Iraupena: 145 m. · Alemania-Austria-Frantzia-Italia

Alemania protestantea, 1913 eta 1914 inguruan eta Lehenengo Mundu Gerra hasteko zorian. Herrixka bateko eskola irakasleak zuzentzen duen haur eta gazte abesbatza baten eta horien familien istorioa: baroia, zerbitzaria, artzaina, sendagilea, emagina, baserritar maizterrak. Istripu arraroak gertatzen dira eta, azkenerako, zigor erritual bihurtzen dira. Nor dago guztiaren atzean? Canneseko Zinema Jaialdiko Urrezko Palmorria. Urteko pelikula onenaren Fipresci Sari Nagusia.

YUKI & NINA

Zuzendaria: Nobuhiro Suwa, Hippolyte Girardot · **Gidoia:** Nobuhiro Suwa, Hippolyte Girardot · **Argazkia:** José Deshaies · **Antzezleak:** Noë Samy, Arielle Moutel, Tsuyu, Hippolyte Girardot, Marilynne Canto
Iraupena: 92 m. · Frantzia-Japonia

Yukik, bederatzi urteko neskatok, bere gurasoak banandu egingo direla jakin du. Aita frantziarra du eta ama japoniarra. Japoniara joan behar du amarekin, guztia Parisen utzita, baita bere lagun Nina ere. Bi neskatok trikimailuak pentsatuko dituzte berriro elkar ikusteko. Irtenbide bakarra alde egitea dela dirudi. Basoa izango dute helmuga. *Un couple parfait* (2005) eta *M/Other* (1999) filmen zuzendari japoniarraren eta lehenengo aldiz gidolari eta zuzendari lanetan aritu den aktore frantziarraren arteko elkarlana da. Cannes-eko kritikak laudorio gehien egiten zion filmetako bat da. Errealizadoreen Hamabostaldian ere hartu zuen parte.



WHATEVER WORKS

(Ongi badoa...)

Zuzendaria: Woody Allen • **Gidoia:** Woody Allen • **Argazkia:** Harris Savides • **Antzezleak:** Larry David, Evan Rachel Wood, Patricia Clarkson, Ed Begley, Jr., Conleth Hill, Michael McKean

Iraupena: 92 m. • AEB-Frantzia

Lehiaketatik kanpo

Larry David-ek interpretatutako New Yorkeko gizon bitxi batek bere goi mailako bizimodua alde batera utzi eta bizimodu buhame baten aldeko hautua egingo du. Hegoaldeko neska bat eta haren familia ezagutuko ditu. Ondoren gertatuko diren iskanbiletan, badirudi inor ez dela beste inorekin ongi konpontzen. Europan lau film egin ondoren, *Vicky Cristina Barcelona* (2008) barne, Woody Allen New York-era itzuli da Tribecako zinemaldian estreinatu zen film batekin.
